

Lehenengo pausua

MARTIN UGALDE



IRAKURRIA dut non-bait, egunkaritan, kiroltan bezala, «lehenengo» izatea dela helburu nagusia.

Horrela da kiroltan lehenengo bereganatzea; hauxe bait da kirolaren zentzua: txirrindularitza helmugara lehenengo iristea, atletismoan markarik onena lortzea, futboleko golen poderioz sailkapenean lehen postuan agertzea.

Deportiboki, noski.

Euskal Herriko kazetaritza bada, ordea, zailtasun berezirik; bertako hizkuntza sustraietatik euskalduna bada ere, adarretatik erdarak joan dira nagusitzen, batez ere azken ehun urte hauetan, eta erdaraz izan ditugu diskriminatuki inposatuak lehen irakurketak legez eta nekez; honek hemen dituen fruituak agerian daude. Denok behar izan dugu erdarako bakoitzean irakurtzen ikasi, eta ez jatorrizko euskararen, eta inbutu berezitik atera gara erdarazko letrak bakarrik irakurtzen.

Bitartean izan ditugun egunkariak erdarazkoak izan direnez, hauek bakarrik irakurtzen ditugu.

Erraza da ondorioa ulertzea: Euskal Herrian euskarazko egunkaria egitea apostu latza da, eta lan honetan ari garenok behar dugu helburu bezala irabazte hutsa ez den beste zerbait. Kiroltan bezala, kirolari txukunak bagara, hasieratik ez irabazteak ez digu adorea hartzeko eta bigarren aukerako izaten *hastea* bera garaipen handia da; gure barruko neurtetan ari bait gara, ez Guinness-en agertzeko.

Noizbait eman behar genuen euskaldunok lehenengo pausua.

Laster emango dugu bigarrena.

Eguzki

J.VELEZ DE MENDIZABAL



EZ NAIZ inoiz txakurren jabe izan. Ez dut sekula, gizonaren lagunik zintzoena ei den animalia horrekiko zaletasun haundirik eduki. Baina gaur, ez dakit nola, gogoan dudana lehen txakurren irudia herageri zait; irudi zirriborotsu baina beroa, nire haurtzaroko unerik xamurren-tako oroitzapen atsegina ekarri didana.

«Eguzki» esaten genion, garaiko Agurain amesgarri hartan nire aitoren txakur leiala izatearen ospea irabazi zuenari: ehize txakur ederra. Zuri beltza. Padura eta Ordoñanako gari soloe-tatik eperraren atzetik, aitoren ondoan, ari izaten zen laguntzaile fina. Bere jaberaren keinu xehe batez, erbia nondik aterea zen ongi ulertzen zuen txakur azkarra. Eta udako ilunabar goxoe-tan, ume-jolasetatik neke-neke eginda itzuli ondoren etxeko atarira biltzen ginenean, hantxe genuen «Eguzki», eguneko gure gorabeheretaz jakinmin balezko bezala.

Harrigarri irudi daitekeen arren, harrez geroztik nirekin zerikusirik izan duten txakurren ize-netatik ez dut batere oroitzapen. Ziur aski, nigan inolako zirrarak sortu ez zutelako.

Zahartxo hil zen. Itsuturik. Errepidean zeharo txikituta zer uzten zuen ikustera ere geratu ez zen kamioi anonimo batek itzalerazi zuen «Eguzki-ren» bizia. Gure haur-une haiek hutsago gertatu ziren handik aurrera.

«Eta zertara dator istorio nigarerazle hau?» itaundu dit Xabier Mendiagak...

●EL SOL

Mairuak eta kristauak

Arrazoiarekin esan da inmigratio irregularrak terrorismoak baino kezka handiagoak sortzen dizkiola EEERi. Gainera, Mendebaldeko segurtasunerako me-hatxu gisa aurkeztu zaio. Galvin jeneralak, NATOko indarren komandanteburua, puntu hori aipatzerakoan azpimarratu zuen NATOren presentzia indartu beharra dagoela Mediterraneoan.

(...)

Iparramerikarrek, hala ere, susma dezakete beraien aukerak gutxiagotu egingo direla Europako Ekonomi Elkartean, beste europarren kompetentziagatik, elkartera daitezkeen beste herrialdeetakoak, eta horiei ez zaie bisatua exigitzen.

ANTONIO REMIRO / 1991-V-13

●EL CORREO ESPAÑOL

Zentralizatzeko Holdingak

Enpresa estrategikoak edo garrantzi handiko erakundeak kudeatzeko, Euskal Autonomi Elkartea bezalako komunitate autonomoentzat, ezin da alde batera utzi Euskal Herriko Estatutu Erregimenaren errealitate politikoa eta juridikoa, bere finantzaketa publikoaren sistema berezia eta gure beharizko ekonomikoak. Horregatik enpresa eta erakunde horien kudeaketa

zentralizatzeko prozesuan instituzioen beraien ahotsa eskatzeko eskakizun zuzena da.

Autonomi egintzarekiko sentsibilitate gutxieneko jarrera politikoa eta ekonomikoaren aurrerapena, kezkarria egiten hasi da. Izan ere, autogobernua, batez ere Euskal Herrian, bere burua foru hazienda integralkin finantzatzatzen duen sistemarekin, ez da alor politikoan bakarrik isladatzen. Garrantzitsua da alor ekonomikoan ere isladatzea. Eta Estatutuaren garapen politikoan emandako aurrerakuntza onargarritzat kalifikatu badaitke, argi dago, ekonomia izaerako alderdi osagarrietan beharrezkoa dela seriozki gauzak berriro planteatzeko.

EDITORIALA / 1991-V-13

●EL PAIS

Bainu turkoa

Arazo kurduak, Iraken aurka ondo bukatu gabeko gerra baten eranskina, Ankarako Gobernuak mugak irekitzera behartu du, hegoaldeko ihesi zioha-zen milaka errefuxiatu hartzeko eta turkoak ez ziren tropei zaintze lanak eta laguntza humanitarioa emateko (Armadak gaizki ulertua eta ofenditutako urguiluarekin arbuia, eta The Independanteko korrespontsala den Robert Fisk kanporaketaren intzidenteak ridikuloraino azaldu). Erantzun negatiboak interbentzio horren aurka Turkia barrukaldean, ez dira laguntzen ari presidentek eman nahi duen herri irekiaren imajina sendotzen. Turgut Ozal borondate ona handia izan da, baina Europa isilgorde



ITURRIA / SUD OUEST / 91-V-12

baten laguntza ere beharrezkoa izan du, berearekin ateratzeko.

EDITORIALA / 1991-V-13

●Diario 16

Espainiaren sumindura Washingtonen

Duela hilabete batzuk, Espainiako telebistak eszena talmalgarri bat eman zuen, zenbait politik beltz bat egurtu bait zuten Los Angelesko kale batean. Afizionatu baten bideokamara bati esker, konfirmatu zen jende guztiak zekien sekretua: EEBetako po-

lizia batzuk ez diote zertan inbidiarik eduki behar Saddam Husseinen Goardia Errepublikanoari. Batzuk iraniarrak, kuwaitiarrak ta kurduak masakratzen dituzte, besteak espainiar, beltz eta kolore arraroko beste egoiliarrei erasotzen diete.

(...)

Daniel Enrique Gomezi botatako tiroak argi erakutsi du Estatu Batuetako bi kultura horiek banantzen dituen susmo eta mesprexuen artean dagoen amildegia.

(...)

Ez da ona hiriburuan bertan, hemendik urte batzuetara Etxe Zuria zein esku egon behar den erabaki ahal izango duten horiek tiroz jostea eta egurtzea.

EDITORIALA / 1991-V-13

ZUZENDARIARI

Ez da sinistekoa!

Ez da sinistekoa gaur egunkarian irakurri duguna. Eibarko Udalak AEK lokalik gabe laga behar duela?

Orain dela 15 bat urteko AEK eta oraingoa ez dira gauza bera?, ez dute lan bera egiten?, orduan lokal publikoak bazituzten, zergatik orain ez?

Eibarren euskarak bultzada behar izan zuen, AEK izan zen arduratzaile hartu zuena eta gainera udalaren babespean eta laguntzaz, lokal publikoak eman bait zizkion.

Guk AEKn ikasi genuen *Euskara eta Euskaldun* egin, eta inoiz euskara zerbitzuren baten premia izan dugunean bertara jo eta baita erantzun ere.

Zer egin behar den ez dakigu, baina AEK loka-

lik gabe laga behintzat Ez!

Gure herrian AEK eta EUSKARA banatu ezinak dira eta beraien lana oraindik ere premia-premiazkoa.

AEK-K
EUSKALDUNDUTAKO
12 IKASLE
IRUÑEA

Euskaldunon eskubideak zakurraren putzaren pare!

Estatu Espainoleko Konstituzioak, Autonomia Estatutoak eta Euskararen Normalkuntzarako legeak zera diote: «Hiru lurraldez osatutako Autonomia barrutiko edozein pertsonak administrazioarekiko harreman oro *Euskaraz* izateko legezko eskubidea du». Legezko testu be-

roietan zera adierazten da oinarritzko zutabe bezala: «Hizkuntza medio inork ezin du bazterkeria edo diskriminaziorik jasan». Zein ederra! Zein legedia zuzen eta eskuzabala! Salbu gaitun/gaituk!

Hala ere errealitatean antzu suertatu ohi da, zeren, horren ondorioz, Administrazioarekiko harremanak, ahozko nahiz idatzizkoak, euskaraz izan daitezkeen eskubidea errealitatean eta praxian egiazko izan dadin exigitzearen ondorioz inork ezin diskrimina daiteke edo bazter! Baina...

Ildo horretatik segituz zera salatu beharra dago: egun hauetan eta 1991ko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsua eguneratzeko betebeharrezko inprimaki edo testuek, aipatu eskubidea guztiz zapaldu eta zokoratzen dute, eta beraz, hizkuntza

medio biztanle euskaldun oro diskriminatu.

Eskubidea bete dadin exigituz gero, Administrazioa ia guztiek gauza bera aipatzen dute: arazo teknikoak daude, inprimakiak programa batetan oinarritzen dira eta hori euskaraz egiteko dago oraingo unea. Eta hurrengotan ere zoritxarrez horrela izanen da, euskaldungoak horrela, erreazionatzeko, segitzen badi!

Ez dizute inoiz esango Euskal Herriko hizkuntza ofiziala den euskararen normalkuntza oztopatzeko nahitazko iharduera programatuta dela, eta behin baino sarriagotan, hire eskubidea maximalista eta neurritz kanpo-ko-gorakoa izanik «integrazioaren» lekuko elebakartasun diskriminazioaren suspertzaile haizeneko salaketa funts gabe eta lotsagabea aur-

pegira diezanakete/die-zaakete. Jakin bezate euskaldunok elebidunok garela, eta integrazioa, elebakar diren aldetik landu behar dela, eta ez elebidun garenok gazte-larazko gizarte elebakarrean integratu! Kontuz hitzon tranpan eror!

Hizkuntza integrazioak, bi hizkuntz elkarrekin koexistitzen diren komunitate batetan euskararen desagertzea da, karrela ziur dakiten arren, Integrazioa = Bakea eta Euskararen Normalkuntza = Gatazka ekuazio faltsu baina *salerezak* gizarte-iritzi nagusi bilakatu nahian edo helburu maltzuraren ari bait zaizkigu lotsagabeki. Injustizia edo bidegabekeria honen aurrean euskaldunok bil eta jeiki dezagun gure ahotsa eta ihar-duera!

J.MENDIA ZUFRIA
URRETXU

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria:
JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:
INMA GOMILA

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIEZ ETXEHARRETA
IÑAKI URIA

Publizitatea:
KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22
Faxa: 45 59 57
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioiak / 20.160 Lasarte-Oria /
☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Araba: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 /
Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskua. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurd / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 /
Faxa: 59 25 75 11